

## **2021eko EKAINAREN 9ko OSOKO BILKURAKO AKTA.**

Tokia: Berako Herriko Etxea.  
Eguna: 2021-06-09.  
Hasiera ordua: 19:30.  
Bilkura mota: berezia, 1. deia.

### **BERTARATUAK:**

#### **EH BILDU**

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco  
José Esteban Aguirre Zubieta  
Estibaliz Pinacho Olaciregui  
Josu Iratzoki Agirre  
Maialen Chantre Irazoki

#### **HERRIRAKO**

Germán Castillo Lazcanotegui  
Jose Antonio Oyarzabal Iribas  
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre  
Raquel Quiroga Tapia

### **ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:**

Julen Errandonea Martin

### **ALKATEA (Bilkurako buru):**

Aitor Elexpuru Egaña

**IDAZKARIA:** Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

**EZTABAIDATUTAKO GAIAK** (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

### **1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/05/19). Inork ez du azalpenik egin eta **ahoko batez** onartzen da akta.

### **2. GORA JOTZEKO 21-00091 ERREKURTSOA, 2020/12/23KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAREN AURKAKOA (XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA UKATZEA).**

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentziak, 2021eko martxoaren 29koa eta maiatzaren 4koa, zeinen bidez Udalarari jakinarazten baitzaio 21-00091 zenbakiko gora jotzeko errekurtsoa, Promociones Urbanísticas Bidasoa, S.L. enpresak jarria Udalbatzak 2020ko abenduaren 23an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, ukatu egin zen Berako 3. poligonoko 130. partzelaren xehetasun azterlana behin betiko onartzea.

- Marcos Erro Martínez abokatuak 2021eko ekainaren 4an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

**aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea errekurtsogilea dela interesatu bakarra espedientearen eta horregatik ez dela epatzerik egin.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegira bidaltzea onetsi den txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera.

M. Aranzazu Zubieta bilerara sartu egin da.

**3. 2021/4 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA. SUTEEK BIOMASA GALDARAN ERAGINDAKO KALTEAK.**

Alkateak espedientearen eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2021eko ekainaren 4an egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientearen izapidetzea kredituak sortzeko, biomasako galdara gelan 2021eko urtarrila eta otsaileko suteetan eragindako kalteak konpontzeko jasotako kalte-ordainarengatik.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:  
1-3200-21200. Biomasa galdararen gela mantentzea. 30.678,56 €.  
Zenbateko osoa, 30.678,56 €.

- Gastuak ondoko diru-sarreraren kontu-sailarekin finantzatzeko direla:  
1-47004. Aseguruen kalte-ordaina. 30.678,56 €.  
Zenbateko osoa, 30.678,56 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez ERABAKITZEN DA** diru-sarreraren bitartez kredituak sortzeko espedientearen onestea (2021/4). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

**4. 2021/5 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. APARTEKO KREDITUA. HORNIDURA- ETA SANEAMENDU-SAREEN PLANOAK. HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak beharrezkotzat jotzen duela finantzen aldetik jasangarriak diren zenbait inbertsio egitea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarriko programa-taldeetakoak.

- Martxoaren 18ko 68/2021 Alkatezaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2020ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak 2021eko ekainaren 4an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, ezohiko kreditua, gastu-partida hauetarako:

1-1612-64000. Ur-hornidurako sareen planoak. 8.140,00 €.

1-1601-64000. Saneamenduko sareen planoak. 4.900,50 €.

Zenbatekoa, guztira: 13.040,50 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 13.040,50 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. Hasierako onespena ematea 2021/5 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespeneri buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Beste aztergairik izan gabe, 20:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,  
Miguel J. Belarra Tellechea.